

anaitasuna

1220x 1200x
1992ko maiatzak 16ko
CORRILAREN 15eko
ZENBAKIA 25PTA

BERGARAN
EHUN URTE
GEROAGO

EUSKAL HERRIKO ATE ERAKUSKETARIK HAUNDIENA

José de Ezpeleta, S. A.

EUSKAL HERRIKO ATE ERAKUSKETARIK HAUNDIENA

JOSE DE EZPELETA, S.A.
ATEAK - PANELAK - HOLTZAK

BILBON
Oficina central
Príncipe, 5
Tlf: 4230930

ETXEBARRIN
Carretera Bilbao - San Sebastián Km. 4'5
Edificio Saga
Tlfs: 4493143 - 4495058

BALMASEDAN
Correría, 47
Tlf: 6800604

ZARAUTZEN
Polígono Industrial, s/n
Tlfs: 841013 - 841906

GASTEIZEN
Urartea, 12
Polígono Industrial Aligobeo.
Tlfs: 243850 - 54

BILBOKO ERAKUSKETA
Buenos Aires, 1 - bajo.
(Sotano Aviaco)
Tlf: 4219811

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi

ondoko txartela eta bidal helbide hontara:

ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º

Apart. 495 - Bilbao-5

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia **Tel**

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

Urteko abonamendua:

Bertorako 500 pezeta
Latin Amerikarako 550 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako 700 pezeta

Ale bakoitza: 25 pezeta.

HELBIDEA:

Pelota, 4-1.º, Bilbao-5
Posta kaxa 495. tel. 4237449

AURKIBIDEA.

3. Editoriala
- 4 - 5 - 6. Tantaka
- 7 - 8 Bergaran Uztailaren 21 ean
(Joan Larrinaga)
- 9 - 10-11 Amnistia, heldu gabeko
fruitua (J.R. Bilbao)
12. "Garaia"
13. Euskal banderari bai (Xabier
Kintana)
- 14 - 15. Euskal errealitate baten
bila (Xabier Kintana)
16. Euskadi Euskal Herriaren
kontra? (L.M.Mujika)
18. Erljioa: Galegoak aitzindari (J.
Altuna)
- 20 - 21. Elkar ikuska: Itxaro Goi-
koetxea (B.Bidegorri)
- 22-23. Veneziako Bienala (R.Garai)
24. Hizkuntza
26. Zapaburu birbiztua

MAKETAPENA: Zumalabe

ARGAZKIAK: Arkolla

MARRAZKIAK: Olarriaga

Moldiztegia: Elexpuru Hnos,S.A.


San Martin, 153

ZAMUDIO

Depósito Legal: BI 1753 - 1967

GURE AZALA: Bergarak euskaldunontzat oso garrantzi handiko uneak bizi izan ditu beti. Gure azalean dakarkigun "Arkolla"ren argazkiak Bergarako alkateak agiria irakurtzen duen unea azaltzen digu.

hitzak dira hitzak



Hitzak dira hitzak... Itxuraz eta hitzez politik giroa aldatzen ari dela dirudi Espainiako politika ofizialean. Hitzez, bai egunkari eta aldizkaritan, eta bai telebista bunkertiarrean, "oposizioari" buruz hasi dira hitz egiten eta alderdien gidariak Suarezekin "oso elkarrizketa adiskidetsuak" izan dituztela esaten digute. Beste alde batetik "amnistia" mugatu baten mugak gero zabalagoak bezala agertu nahi dizkigute zenbait egunkariren lerroek.

Bitartean, urte luze osoan gertatu den bezala, Euskal Herrian geure eguneroko errealitateak hitz horien gezurra agertzen digu. Indultuak joan eta amnistiak etorri, gure gudariak lau orma artean segitzen dute euskaldunak izateagatik. Bake hitzak joan eta bake hitzak etorri, gure gudari bat hila izan da, espainiar eta frantzes polizien baimenaz. Bitartean, foru eskakizunak sentimendu zahar batzu bezala ikusi dira Madrilen; gure eta gure ordezkoen ahots herritarra, Euskal Herriaren ahotsa, ez dute entzun nahi Madrilen, Euskal Herria lau "separatistaren" asmakeriatzat baitute.

Horrela, gure gai garrantzitsuenak lelokeriatzat hartuz, gero eta argiago agertzen da Madril eta Euskal Herria ezberdinak direla eta gure herria ezin zaiola arrotzak egindako bideari jarraiki. Eta, bitartean, hor ditugu Donostiako "Mugimenduko" egunkariak, gure ikurrina alde batera utziz, "Gipuzkoako bandera" bila, beraiena "noizbait Euskal Herrikoa bihur dadin...", berek diotenez. Euskal Herrian agertzen diren egunkari ofizialen itsukeria ez da berria, baina Euskal Herriak bere ikurrina ba duela ez jakitea itsutasunik beltzena da benetan.



PERTUR ASASINATURIK

Uztailaren 22ean PERTUR, Eduardo Mari Moreno Bergareche, ezezagun batzuk bahitua izan zen. Lehenbiziko mementutik eskuin puntako espainol erakunde baten eskua susmatu izan da hor. Uztailaren 30ean, "Batallón Vasco-Español. Comando Emilio Guezala izeneko batek firmaturik, komunikabideetara eskribu hau heldu zen: "Eduardo Moreno Bergareche, Pertur, ha sido ejecutado y enterrado en un pueblo de Navarra. No será el último. Ojo por ojo. Viva la Unidad de España".

Politik aztertzaile guztiek, aho batez gainera, egitada hau ETA politiko militarrekiko probokaziotzat hartu behar dela dioite. Pertur oso moderatua zen politikan eta ETA p.m. barruan, militarismoa utzirik, politika bake-tsuan geratzea proposatzen zutenetako zen. Horregatik Espainiaren batasunaren izenean asasinatu omen dutenek mendekuaz beste arrazoirik eduki duketela pentsa daiteke. Euskal Herrian eskuindarrek daramaten terrorismo eskaladari ETA erantzun bat ematera obligatzea, esaterako.

FRAGA IRIBARNEK ZENBAT MAITE GAITUEN

Orain ez dela asko, Fraga Iribarne, Ministroa zela, Venezuelara joan zen. Han, kazetariak hurbildu zitzaizkion galdezka.

Haierariko batek euskal ikurrinaren arazoa planteatu zion. Eta zergatik euskal ikurrina debekatu zegoen galdetu zionean, aurpegi ilunez erantzun omen zion: **Para autorizar esa bandera, tendrán que pasar sobre mi cadaver.** Eta hau dugu, Fraga hau, aperturista!

DONOSTIAKO KARTELAK

Antiguako hauzategitik irteniko azken manifestazioan (60.000 lagun), hainbat pankarta eraman ziren, eskuin muturreko terroristen inpunitatea salatuz. Batek hau zion: "Autoridades: **cumplan con su deber. Defiendan al pueblo**". Eta beste batek: "Ez terrorismorik Kristoren izenean". Ea bada, agintariek eta Elizak beren eginbeharra betetzen duten, haiek herria defendatzen eta Elizak Kristo izena eramatea eragozten.

ZEIN ERITZI DUTEN GUTAZ

Berriki pasatu da Euskal Herriatik, Madriletik etorritako europar kazetari hospetsu bat, eta galde egin diogu ea zer pentsatzen duten Euskal Herriaz Madrilan lanean ari diren europar kazetariak. Haien eritziz, Euskal Herria dezisiboa gertatuko da Espainiako etorkizunean. Eta haien beste eritzi bat: euskaldunok nahiko arrazistak omen gara. PSOEkoen kanpainaren fruitua ote?.

XAHOREN IBILALDI MOZTUA

Hainbeste urtetan zokoraturik eta ahantzirik egon ondoren, aurren bi argitaratzailek eskaini digute xaho zuberotarraren liburu famatuena: **Voyage en Navarre pendant l'insurrection des Basques.** Horietako batek, TXERTOAK, Xabier Mendigurenen ardurapean utzi du itzulpen oso eta moderno bat egitea, horrela irakurleari testu on bat eskainiz. Besteak, AÑAMENDIK


halegia, Bilboko lehiakide famagu baten reprinted-en bidetik abiatuak, R.I.E.V. en Martin de Angiozarrek, duela berrogeitahamar urte inguru, argitara eman zuena publikatu du, orduko zentsura eta moralagatik ebakiak eta guzti. Eta guzti honekin liburu hori Xahoren "obra" dela esateko ausartzia daukate.



P.C. de VASCONGADAS

Uztailaren azken egunetan, P.C.de Euzkadiko kide batzuk jendaurreko elkarrizketa bat eratu zuten, hartan beren alderdiaren aurkezpena egiteko. Ondoren egon zen elkarrizketan, EHASKO kide batek, Nafarroa eta iparraldea beren Euzkadi horretatik kanpoan uzten dituztela eta, ea zergatik P.C.de Vascongadas izena ez ote duten hobesten galdetu zion. Erantzuna: "Guretzat Euzkadi errepublika garaiko kontzeptu eta legalitatea da, hirur probintziori dagokiena. Nafarroa eta iparraldea adierazteko, Euskal Herria dago".

Ongi pentsatuz gero, arrazoirik ez dutela falta aitortu beharra dago, gu orain arte horretaz konturatu ez arren.



EHUN URTE GEROAGO, ETA BERDIN

Uztailaren 31an, goizeko 11etan, meeting kolektibo bat egiteko zen Algortan. Gaia: Euskal Herria ehun urte geroago. Hizlariak PNV, PSOE, PCE, ANV, MCE eta EHASEko zenbait kide omen ziren. Baina azken mementuan ez zen Fadurako football zelaian egiteko baimenik lortu. Geroago eta okerrago, antza.

MITXELENAK ESANA

Salamancariak esan digunez, Donostiako hauzategi martiriaren euskal izena ez da Antiguu, Antigua baizik. Horixe omen da bertako zaharrek beti erabili dutena behintzat. Ez genuke orain arteko arrazoiengatik izen hori aipatu nahi, baina tira, ba dakigu nola deitu behar dugun. Eskerrak zuri jauna.

USAko KONTSULA ELAko HETERODOXOEKIN

Bide on batetik heldu zaigun berria da hau. Bilboko Unibertsitatean ELA-STVkoek— Juantxu Beitiarrak halegia— CIOSL eta CES europar sindikatuen ardura-dunei gonbitea egin zieten, beraien batzarrean presente egon zitezten. Berauek onhartu duten ELA bakarra, ordea, Manu Robles Arangiz eta J.M. Leundarena da, hots, gerraurretik prozedura demokratikoaz datorrena, eta, horregatik, ez dute besteen deia ontzat eman.

Horiez gainera, baina, Estatu Batuetako Bilboko kontsula bera ere deitua izan da, eta dirudienez, horrek ukan du, bai, batzarretara joateko asmoa.

Ez da gaizki pentsatzeagatik, baina oroipenak lagun, orain ez dela asko euskal aldizkari batetan jaun horrek CIArekin ez dakit zer eta ba dakit nor zer ikusia omen zuela irakurriak garelako esanen nuke.

EINKOR, ENTREPRESARIEN SINDIKATUA.

Sortu berria da Euskadin entpresarien sindikatua. Euskadiren mugak dira sindikatu onenak. Sindikatu abertzalea da, baina ez alderdi edo talde politiko jakin bati lotua.

Dagoneko 200dik gora dira sindikatu horretara bilduriko entpresak. Eta, dirudienez, aurrerantzean, entpresatik eta erdi mailako asko eta asko sartuko dira partaide bezala.

Arauek diotenez, patroien sindikatu hau langileen sindikatuaren alde agertzen da, eta baita ere demokraziatzeko erakunde politikoaren alde, eta berdin Europako komunitatearen alde.



NATXO DE FELIPERI ZIGORRA

Uztailaren 25ean, Azpeitian egindako jaialdi batetan, Natxo de Felipe kantari ezagunak hitz batzu esan zituen euskaraz jendaurrean. Gipuzkoako gobernadoreak hitz horik ordena publikoaren kontrakoak zirela eta, 50.000 pezetako multa bat ipini dio Natxori. Eta gero euskarak ez duela dirurik egiten esanen du norbaitek.

J.L. DAVANT MAULEN XAHOZ MINTZO

Jean Louis Davant euskaltzainak Agorrilaren 22an, goizeko 11etan, bere sarrera hitzaldia eginen du Euskaltzaindiaren bileran Mauleko Herriko Etxean. Gaia: "Abadia Urrustoiko eta Agosti Xaho Atharratzeko".

J.L. Davantek 41 urte ditu, ezkondua da eta bi alabaren aita dugu. Nekazal ingeniaria da eta Hazparneko nekazaritz ikastetxeko irakasle. I haz, Guillaume Epherre kalonjearen heriotzaz, euskaltzain osoa izendatua izan zen Zuberoaren partez. Davant HASEko buruzagietako bat zen— orain EHASEkoa den bezala— eta euskaltzain batek politikan parte har zezakeela ikusteak bere sestetik atera zuzen, nonbait, Jon Oñatibia jauna, haren kontra bereak eta bost esanez. Dirudienez, Pariseko gobernuak iparraldeko euskaldunei onhartzen dizkien eskubideak kendu nahi lizkiekete zenbaitzuek.

BIZKAIKO DIPUTAZIOAK EZ DAKI KANTATZEN.

Uztailaren 21ean, Madrileko gobernuak Foruak kendu zizkigunetik ehun arte betetzen zirenean, Bizkaiko Diputazioak, probintziako alkate gehienekin, bilera berezi bat ospatu zuen, telebistak agertua. Bertan ikusi genuenez, erakunde horretako jaunek, bukatzeko, Gernikako arbola kantatzen edo hasi ziren... asmoz behintzat. Okerrena, ordea, zera zen, inor guttik zekiela gure hymnoa bertan, eta papera aurrean zutela ere nekez lortu zutela beren xedea betetzea. Cara al Sol izan balitz, ordea...


Gertakari penagarri hori berriz gerta ez dadin, jakin dugunez, Bizkaiko Euskal Profesional-artekoak (BEPsAk) diputatu jaunnei Gernikako Arbolaz disko bana erregalatzea erabaki du, horrela hurrengorako ikasiko dutelako uste baikorrean.

LARRABETZUAK SEIEHUN URTE

Nahiz eta sarri horrelako hospakizunak alde batetara uzten ditugun, guztiz interesgarriak direla uste dut, zeren eta hauen bidetik abiatuz, hobeto ezagut baitezakegu geure Herriaren historia.

Larrabetzu Bizkaiko herri tiki bat da: ttikia baina jatorra. Txoriherriko mugan, Arratia haranerantz luzatzea da, hizkuntzaz oso arratiarra i anik. Herri honetan, abuztuaren batean, bere fundazioaren seiehu ngarren urtebetetzea ospatu zuten larrabetzuarrak. Zenbat gorabehera ez ote den gertatu ordutik hona? Dena dela, kasu horretan egiten den bezala, zorionak guztioi!

Hori dela eta, larrabetzuarrrek hainbat jai antolatu dute hilabete honetan. Hauetariko batzu pasaturik daudela, datorren 22rako antolatu duten egitarauaren berri emanen dut soilik. Egun horretan, beste gauza batzuren artean euskal liburuaren eta diskoaren erakusketa egonen da, eta bukatzeko, Euskal Jaiak. Ekin eta jarrai.



VIKINGOAK MARTITZERA

Amerikarrek Martitz planetara bidalitako 2 espazialuntziarik bat, Viking I.a, halegia, Uztailaren 20ean heldu zen planeta gorriaren azalera. Espazialuntzi honen misiorik garrantzitsuena zera da, Martitzen izaki bizirik ote dagoen erabakitzea. Zenbait zientzilarik Martitzen bizidun mikroskopikoak egon daitezkeela uste dute.



BIZKAIKO DIPUTAZIOAK POLIZIAK HARMATUARI URREZKO DOMINA IPINI

Uztailaren 30ean, Bizkaiko Diputazioaren izenean, don Augusto Unceta-Barrenak, erakundearen buruak, probintziaren urrezko domina eman zion Polizia Harmatuaren koronela den don José Iboleón Pagolari, horrela Bizkaiaren izenean, bizkaitarrron alde hainbeste saiatu den militar gorputz horri bere eskerak emanez. Unceta jaunak, hospakizun honetan, beste batzuren artean, hitzok esan zituen: "Esta tierra nuestra, esta nuestra Vizcaya querida, llena de tradiciones y derechos que es preciso reconocer, grita su hambre milenaria de España y canta las perennes lealtades de su esencia, a quien representa los destinos del sagrado nombre de la patria: el Rey"

Hortik zehar zenbait etako gaizto eta bihurri euskaldunon bakezaletasun eta zintzotasuna itusten ari direla ikustean hunkigarria da gure Diputazioburuaren jestua. Bera izan zen, gainera, gisa honetako zintzotasun bidean, bertako alkatea zelarik, Francori Gernikako diamantzeko domina eman ziona, Don Telloren hiriarren 600 urteak ospatzean. Harturiko mesedeengatik eskerrak ematea ongi jaiotakoena omen da, gaztelauen esanez.

EHAS-EN ALDIZKARIAREN ARRAKASTA

Euskal Herriko Alderdi Sozialista (EHAS) erakundeak Euskaldunak izeneko aldizkari bat argitaratzen du Ipar Euskal Herrian, eta izugarritzko arrakasta lortzen ari da. Hilabetekari honen azken aleak, dendetara zabaldu eta berehala agortzen omen dira.



ASTERIX EUSKARAZ

Ba dugu, azkenean, mundu osoan ezaguna den komikia euskaraz. Iñaki Beobidek aterata, jadanik galiar begiko horren lau abentura salgai daude: Asterix lejonarioa, Asterix eta Kleopatra, Buruzagien burruka eta Asterix eta normandoak.

Komiki hauen euskaratzailea —zergatik ez ote dakarte haren izena?— Gabriel Aresti izan zen, eta Kanpeadoreari bezalaxe, beroni ere hil ondoan bataila ematea gustatzen zaiola dirudi. Kleopatrarekiko ibilaldian, Bilboko mediku ezagun bat dela eta ez dela, egin duen itzulpen librea lekuko.



bergaran uztailaren 21^{LEAN}

Foruen deuseztapenaren Mendehurrena dela eta, kontaezinak dira aurten Euskal Herrian egin diren bilkura, mahai inguru, hitzaldi eta artikulu. Euskal aldizkari guztiak ere horretaz mintzatu dira, uztaileko zenbakitan, ohargarri denez.

Asteguna izan arren, uztailaren 21ean, han eta hemen euskaldun jenderik bildu zen, lanordutatik kanpo nahiz lanari utzita. Baina manifestatze denetan handiena, zalantzarik gabe. Bergarakoa izan zen. Handiena, jendez, esanguraz, eta etorkizunaz.

Alde guztietatik.

Hiruzpalau bide daude Bergaran sartzeko. Denetatik zetorren jendea eurrez, nahiz eta denetan kontrolak egon. Kontrolik gogorrenak San Prudentzio inguruan zeuden nonbait. Hori dela eta, Arrasateko alkatearen zain egon behar izan genuen.

Euskal Herri osotik bildu zen jendea, gutienez Hego aldeko Euskal Herritik. Egun ekumeniko bat abertzaletasunerako. Euskal politikan ere bai. Euskal alderdi eta talde politiko guztietako jendeak egon izan zuen han, batzuk telegrama bidez, beste batzuk jendeari hara joateko eskatuz.

Adin guztitako jendea bildu zen. Jende heldua eta gaztea. Baina gazteak ziren nagusi. Zenbat kalkulatzera ez da batere erraza. Hogei mila diote batzuk, hogeitau hamar ere bai. Agian gehiago. Dakiguna da, betearen inpresioa egiten zuela Bergarak. San Martin plazan eta ingurutan nekez mugi zitekeen bat.

Txaloak ugari.

Egia esan, Bergararako bidean gindoazelarik, ba genuen geure baitan kezkarik: Bergarako hau ez ote da izango, gero, oroigarri huts bat? Ez ote da izango lantu eta tradizionalismo jario bat? Gaizki genbiltzen. Hospakizun bat gertatu zen Bergarakoa, baina ez bakarrik "ez genuen" zerbaitena, baizik eta "eduki nahi genuen" eta "lortu behar dugun" zerbaitena. Burruka egun bat gertatu zen, bere modura.

Kontzentrazioa legez onhartua izan arren, ba zegoen giroan halako urduritasun bat. Holako gertakariak estrenatzen ari gara, izan ere. Gainera, berehalaxe zabaldu zen polizia asko zegoela ingurutan. Eta denok genekien, bilkura hura ez zela agintarien deboziozkoa.

Jendeak txaloaren bidez agertu nahi izan zuen bere preferentzia. Hori zen haren harma. Ikaragarri txalotuak izan ziren udalak, banan banan agertu zirenean, rebelde bailiren. Bergarakoaz aparte, Iruinekoak eta Lizarrakoak jaso bide zituzten txalorik luzeenak. Ikurrinak Seminarioko balkoain agertu zirenean, Meza garaian, eskuak apurtu beharrean jo zuen txalo plazako jendeak. Txistuka hartu zen bakararra, PCEk jarritako ikurrina izan zen. Alkatearen hitzaldia ere sarritan izan zen txaloz hartua, hamaost bat aldiz bai.

Udaletxeak.

Inork uste baino Udal gehiago bildu zen Bergarara. Hogeitau hamarren bat uste, eta hirurogeitau hamarren bat bildu. Gipuzkoatik etorri ziren gehienak. Arabatik oso guti. Bizkaitik ere hamarren bat bakarrik, gutiegi. Eta Nafarroatik uste baino gehiago, hamaika-hamabi. Esannahitsu izan zen hemenlik



Lizarra etortzea. Eta agerian eta biluzik utzi zituen Iruineak, etortzearekin, Euskal Herriko beste ajuntamendu zenbait, hala nola Bilbo, Donostia, Gazteiz.

Agertu ziren Udal horiek ba dute meriturik. Burrukak ugari izan baitziren, ajuntamendu barnean (alkaterik gabe etorri den ajuntamendu bat baino gehiago ere ba da), eta Diputazioarekin eta Gobernadorearekin. Hauen aldetik ezkerreko begitik ikusia zegoen Bergarako bilkura hau. Batasuna zatikatzeke ahaleginak eurrez ikusi genituen aurreko egunetako egunkarietan: bakoitzak bere herrian ospatu behar zuela, Gernikara joan behar zela, Udalak Diputazioa bildu behar zutela, eta abar.

Foruen defendatzaile bide diren Diputaziorik ez zegoen Bergaran. Hala hobe: herri ekintza bezala



EUSKAL HERRIAN

argiago gelditu zen Bergarako ekintza. Hala ere, ulertezina da Diputazioen jokabidea, zertarako egon behar luketen jakinik. Gipuzkoako Diputatu zenbait agertu zen han. Baina ez Diputazioaren izenean, Esaterako, Olaizola bere izenean etorri zen. Egia eta Telleria udal bezala. Eta bazen besterik ere, oker ez banago. Ez Telleria eta ez Egia joan ziren arratsaldean Diputazioak Gipuzkoako alkateentzat antolatuturiko Batzarrera, goizean Bergaran egindakoaren aurkakotzat hartu baitzuten. Biziki hasarretu omen ziren horregatik diputatu jaun batzu, Lehendakari-tik hasita.

Hona Bergaran ikusi genituen udalen zerrenda:

ARABA

Aramaio, Audio, Okendo.

BIZKAIA.

Bermeo, Berriz, Elorriaga, Markina, Ondarroa, Otsandio, Villaro, Yurre, Zaldibar, Zeberio.

GIPUZKOA.

Andoain, Anzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Ataun, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Bergara, Deba, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Eskoriatza, Ezkioga, Gabiria, Getaria, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Idiazabal, Lazkao, Legazpia, Lezo, Motriku, Mutiloa, Oiartzun, Oinati, Ordiziako Villafranka, Orío, Ormaiztegi, Pasaiak, Plazentzia, Segura, Tolosa, Urnieta, Urretxuako Villareal, Usurbil, Villabona, Zaldibia, Zarautz, Zegama, Zerain, Zestoa, Zumaia, Zumarraga.

NAFARROA.

Bera, Bertiz-harana, Doneztebe, Elgorriaga, Uharte, Ituren, Lesaka, Lizarra, Iruiena, Sunbilla, Zubietak.

Alkatearen agiria.

Enparantzatik segitu ahal izan genuen Bergarako Udaletxearen Batzarrea. Zatirik aipagarriena, alkatearen hitzaldia izan zen, Euskal Herri osoari zuzendua. Biziki ausarta.

Egin zituen salakuntzak, bota zituen aitortpenak, eta formulatu zituen eskariak azpimarkatuz aipatu beharko dira aurrerantzean.

- Gaurko alkatetzaren hautabidearen demokraziarik eza salhatu zuen, Foruen tradizio demokratikoarekin kontrastatuz.



- Euskal Herri osoaren aitortpena egin zuen. Ipar eta Hego aldearena, Estatuak jarritako mugaren gainetik.
- Etorkinei Euskal Herri berri baten aldeko lagintza eskaini zien, integrabideak eskatuz.
- Euskara ofizialki onhartzea eskatu zuen.
- Erabateko amnistiaren alde agertu zen, Euskal Herriarentzat bakebide izan dedin.
- Legezko indarkeria salatuz, gainerontzeko indarkerien iturburu bezala.
- Askatasunaren alde, herriaren eskubideen alde eta Euskal Herriaren nortasunaren alde hildakotzat hartu zituen, neurri berean, foruen alde hilak, eta orain azken urteotan hilak.
- Berrintegratze oso batentzako abiapuntu bezala Lizarrako Estatutua proposatu zuen.
- Nafarroaren euskaltasuna aldarrikatu zuen, han zeuden udalak testigutzat emanez, Nafarroa Euskal Herriatik aldendu nahi duten zenbaiten aurka.
- Eta azkenik, 1976eko uztailaren 21a Mendehurren triste baten amaieratzat eta Mendehurren hobeto baten haseratzat jo zuen.

Joan Larrinaga



AMNISTIA

heldu gabeko fruitua

Gertakariak beren arteko loturekin batera aztertzea komeni delarik, kronologikoki amnistiaren eskariaren inguruan emaniko zenbait pauso aztertuko dugu. Manifestazioak alde batetara utzirik —hauk guztiok ezagutzen baititugu— ixilago eramaniko burruka bat aipatuko dugu: gartzelatu senideena halegia.

Gartzelatu politikoak guztion arazoa diren arren, beharbada haiengatik gehien kezkatzen direnak eta sufritzen dutenak, beren senideak dirateke. Berauek, gartzela politikoak husteko bide bakarra egintza dela sinetsirik, beste gauza batzuren artean, gutun bat idatzi zioten Espainiako Erregeari, amnistia eskatuz. Interresgarri delakoan, hona hemen gutun horren testua:

ESPAINIA-KO ERREGEA ZAREN JUAN CARLOS I JAUN HORRI.

Idazki honen bidez, euskal preso politikoen senideok, politikazko asmoz jokatzearren espetxeratuak edo herbesteratuak izan diren guztientzat, baita ere oraingo legeak "terrorista"tzat dituenentzat, AMNISTIA eskatzen dizugu.

Bide batez, idazki honen bidez jakin erazi nahi dizugu, nolakoa den gure senideen egoera edo zenbaiteraino aurkitzen diren gaizki.

Senide guztiok, Gobernu berria jartzean eta bertako batzuren esanak entzutean, egoera zeharo bigundua izanen zela uste genuen, baina zoritxarrez bestetara jazo dela aitortu behar. Presoen espetxetako giro barnean aldatu den gauza bakarra, zigortetaren maila izan da: hainbat gogorragoa egin da, hain zuzen. Esate baterako, Puerto de Santa Maria-

ko espetxean dauden preso politiko gehienak zazpi urtetatik gora daramatzate barruan eta ez dira izan inoiz, oraingo honetan dadukaten bizimodu jasanezina eraman beharrean; hain gaizki aurkitu.

Hilabete batzu direla, apirilean hain zuzen, gure arrenkurak eta ardurak agertu genizkion Jutziziako Ministro zen Garrigues jaunari. Honelakoa izan zen, hartutako erantzuna: idazkia bere tokira heldu zela, ministroa jakinean jarria zela eta "bidezko zena" eginen zela. Hala ere, ez da ezertxo egin, ixilean jarraitu baizik.

Nahiz eta Soria-ra berehala eramanak izanen zirela, behin eta berriro mila promesa ugariz esan, gure senideak geroago eta sakabanatuago eta jaiotz herritik urrunago aurkitzen dira, eta beraien oraingo egoera jasanezina bihurtu da, preso egoteari pertsona izateari baino gehiago begiratuz gertatua izan denez.

Lehendik berez gogorregi den arautegiaren aitzakiz, maiz izaten dituzten zigorketak, araketak eta beharrian gorriak bultzatzen eta behartzen gaituzte hauk esatera. Argi adierazten baitigute, batez ere psikologiazko jasanezin hori, egunerik egunera ugariago hartzen dituzten medizina lasaigarriek. Eguneroko zapalkuntza gorrian bizitzera behartuak daude, oinperatzea edo burua makur-eraztea baino bestelako arrazoirik ez duten araketa gogorrek jasanez eta edozein huskerigatik zigorketak hartuz, edo eta zaintze modu nazkagarriren bidez zerbaitegatik zigortzeko aitzakiak ateratzeko, beraien senetatik irteten eraziz. Eta guzti hau, beraien psikologiazko kementa, egunerik egunera kirioetako egoera biza horietan edukiz, ahultzeko hain zuzen.

Zigor-geletara gaztigatzeak izugarriki ugaritu dira, horretarako edozein, huskeri aitzaki dela. Gela horietako laztasunak, oinazeak izateraino heltzen dira. Puerto de Santa Maria-n, azken hilabete hauetan guztiek egon behar izan dute etengabeko aberegoera horretan, batzuk 300, beste batzuk 120 edo 90 edo 80 egunetan. Zorioneko banakaren batzuk, 40 egun bakarrik! Eta egon ere eguneko 24 orduak bakar-bakarrik, nahiz espetxeko beste lagunekin nahiz senideekin harremanik gabe, 2/3 metro zabale-ra/luzera dituzten geletan, lababo bat, komun bat eta ohe bat baino ez dituztela. Egunez kendu egiten diete lastaia bera ere eta zutik egotera behartzen dituzte. Hauetako zigor-gela batzuk ez dute argibiderik ere. Bestalde, galeraziak dituzte bai liburuak, aldizkariak eta egunkariak, bai eskutitzak idaztea eta hartzea, bai tabakoa...eta erlojua bera ere. Egoera honetan duten janari bakarra, kalitatez eta kantitatez hain urria izaten den "ohiturazko rantxo" da. Batek, 90 egunen barnean, 20 kilotik gora galdu ditu. Ez dugu bidegabekierarik edo larregiekierarik esaten, gorputzez eta psikologiaz hondatu nahi dituztela esatean.

Puerto de Santa-Maria-ko espetxean dagoen gure senide bat, hamabost egunerako horrelako zigor-gela batetara sartua izan zen, eta dena funtzionario zaintzailearen eritzian, karraju bat igarotean, zigor-gelan zegoen bati begiaz keinu egin ziolako. Beste bat, preso arrunt bat bidegabekieriaz funtzionario batek tratatzen zuela ikusirik, gizonari dago-kionez egiteko eskatu ziolako. Cartagena-ko espetxean, 80 egunetarako zigor-gelatu zegoen bati, beste 40 egun gaineratu zizkion funtzionario batek, gelan jesarrita aurkitu zuelako.

Gogoan hartzeko beste puntu batzu:

1.—Espetxe horietatik senideon etxeetara dauden distantzia luzeak. Senideok, gehien bat ekonomiaz ahalduak ez garenez, eta joan-etorriak diru eta asti asko eskatzen dutenez, ikustaldiak noizean behin egitera behartuak aurkitzen gara.

2.—Ikustaldi horik hain neurtuak izatea: hilean 4 baino ez, lehen mailako espetxeetan, edo eta oso laburrak, bakoitza 20 minututakoa, eta horretarako askok 2.000 kilometro ibili behar izaten ditugu joan-etorria egitean.



3.—Funtzionarikoek gure elkarrizketa guztiak zelatatzea, familia arazoetatik kanpoko den edozein gauza entzutean, elkarrizketa ebakitzeko zain daudela. Beste hainbeste gertatzen da eskutitzekin ere: ezin aste bakoitzeko 2 baino idatzi, eta hola egitean ere, ezin horrialde bat baino luzeago egin eta zehatz kontrolatuak gainera!

4.—Senide batzuk erdaraz mintzatzeko ohiturarik ez dutenez edo gauza haundirik ez dakitenez, ezin esan zenbateraino sail egiten zaizkien ikustaldi horirik, euskaraz egitea galerazia dutenez. Behin batean ama batek ikustaldiko 20 minutu osoak semeari begira, tutik ere esan gabe, igaro behar izan zituen erdaraz ezer ulertzen ez zuelako.

5.—Presoek, bestalde, guztiz galerazia dute senideak ez direnekin bai elkarrizketaz, bai idazkiz harremanik edukitzea, bizitzeko adiskideengandik zeharo urruneratuak biziz. Beste hainbeste gertatzen zaie abokatuekin ere. Hauek ezin izaten dute, prozesua bukatutakoan, babespean dituzten presoekin, aurrerantzean harremanik eduki.

6.—Eragozpen gogorrek dituzte, baita ere, Espaini-n bertan argitaratuak diren edozelango liburuak, aldizkariak edo egunkariak hartzeko. Eta hartzen dituzten banaka-banakak, zeharo begiratuak eta moztuak hartzen dituzte.

7.—Sendatze-arloko ardura eza, batez ere espetxeko sendagilearen aginduz, presoak hospitalera eramane behar diren kasuetan izaten den luzapena. Hori zela eta, Sabino Arana oso gaizki, azkenetan, heldu zen Carabanchel-eko espetxe-gaixotegira. Caceres-eko espetxean dagoen Garmendiaren kasua ere aipatzen dugu, atzilotua izan zenean, hartu zituen zauriekatik, garondoa mindua duenez, apartezko zainketa behar duelako.

8.—Preso arruntekin bizi behar izatea.

Baita ere esan behar hemen, nola oso gaizki erabiliak izaten diren, toki-aldaketak egiten orduan. Aurretik ezer jakin erazi gabe ateratzen dituzte espetxetik; eta soinean dituztenekin bakarrik, eskuak loturik eramaten dituzte. Bidean, gainera, gehienbat irainduak izaten dira, txakurrenak entzunez eta behin baino sarriago zigorketak hartuz. Horrela egin zuten Sarasketa-rekin Segovia-tik Puerto de Santa Maria-ra aldatzean: zigorketa haundi bat eman ondoren, gorbata bat irents erazi nahi izan zioten. Edo gogora ekar dezagun Sabino Arana-ren kasua: Honi,

nahiz eta oso gaizki egon, Puerto de Santa Maria tik Carabanchel-eko espetxe-gaixotegira eramatean, ez zioten ur tantarik ere eman. Hau sarritan gertatu izan da, aldaketa horik egitean.

Arduratzeko beste motibo batzu ere baditugu. Hots, epaitu gabeko atzilotuak, Basauri eta Martutene-tik beste zigor-espetxe batzutura eramaten dituztela ikusteak, eta komisaldegietan hartzen dituzten zigorketak eta tratu txarrak jakitea.

Bukatzeko, Izazkun Etxebarria-ri jazotakoa aipatuko dugu. Hamazortzi urteko neska hau, oraindik epaitu gabea, Yeserias-eko espetxean dago. Ez zioten utzi, hiltorian zegoen bere aita ikustera etortzen. Aitak, horrela, bere alaba ikusi gabe hil behar izan zuen.

Hau guztiau agertu ondoren, berriz ere ANMISTIA eskatzen dugu, eta hori ematen ez den artean, hau eskatzen dizugu:

Espetxeraturik dauden preso politikoen egoera aztertzeko, aipatuak izan diren ezbehar guzti horik konpontzeko eta gizonezkoagoa eta zuzenezkoagoa den tratu bat emateko.

Espetxeratuak dauden preso politiko guztiak, berehala gure etxeetatik hurbil dauden presoondegietara ekartzeko.

Gure eskari hau ongi hartuak izanen diren us-tetan agurtzen zaitugu.

EUSKADI, 1976eko uztailaren 13an

Honekin batera, senide bakoitzak telegrama bana bidali zioten pertsonalki Juan Carlos lehenari eta Sukia kardinalari.

PUXIKA PUZTUAK, PUN!

Heldu zen uztailaren 30a. Eta amnistia eta alaitasun eguna izan zitekeena, desilusio eguna bihurtu zen, haserre eguna ez esatearren "Zarata asko, egintza gutti, ametsa eta ametsa" dio kanta batek. Hauxe da, hain zuzen, Gobernuak emaniko amnistiarekin gertatzen dena. Euskal Herri askatu baten alde burrukatu diren asko eta asko, "terrorista" izenaren multzo barruan daudelarik, ustelduz segitu beharko dute gartzelako sei ormen artean.

Gauzak horrela, gartzelatuen senideek prentsaurreko elkar hizketa bat antolatu dute, beren eritzia azaltzeko. Elkar hizketa hori agorrilaren 5ean egin da, eta, interesgarria baita, bertan esanikoen laburpen bat eginen dizuet hemen.

Hasteko —eta ohar bezala— lerro hau idazten ditudanean (agorrilaren 6an, goizean) oraindik gauzak batere argi ez daudela esan behar dut, eta gaur bertan Burgoseko general batek abokatuekin batzartze bat duela, arazo hau pixka bat argitzeko.



Dena dela, argi dagoena, zera da, gartzelatu guztiak ez direla irtenen, eta Euskal Herriko gartzelatuen kasuan aren guttiago. "Terrorista" eta "ez-terrorista" deiturikoen artean egiten den desberdintasun eta diskriminazioak, ez du zentzunik ordea. Azken batez, gartzelatu guztiok ideia berberengatik egin dute lan eta gauza berberak lortzeko burrukatu dira; desberdintasun bakarra burruka moduan dago, baina hau gauza superfiziala eta azaleko ñabardura da. Aldiz, sasiamnistia honetan, azaleko den ñabardura horri, oinbarrizko balioa ematen zaio.

Gartzelatuen senideen eritziz —eta ene eritziz ere bai— gartzelatu horik ez dute inolako deliturik egin. Hori frogatzen duten arrazoi batzu, ondoko hauek dira: Herria amnistia orokor, eta osoaren alde burrukatzen ari da, eta lagundu egiten ditu gartzelatuak; gartzelatu horiek hospe eta prestigio handia dute herriko jendearen artean, oso estimaturik egonik. Hori ez litzateke posible izanen, "terrorista"tzat hartuak balira.

Beraz, gure eritziz, amnistia gartzelatu politiko guztiak kalera atereaz uler daiteke soilik. Eta horregatik, berorien senideak hitz emanik daude, ezen, guztiok kalera atera arte, eutsi eginen diotela burrukari, irtenen diren bakartzuak irten arren. Modu berean, kondenatu eta salhatu egiten dute, informabide batzuk hartu duten jokabidea, amnistia eskas honi neurri gabeko propaganda eginez, eta emaniko amnistiaren dena konponduta bailegoen. Hori ez da, behintzat, toki desberdinetan eginiko manifestazioetan eskatu dena. Eta, behin gauza bat benetan nahi duenean, Herria ez da erraz engainatzen eta bestelako gozoki batez konformatzen. Amnistia orokorraren fruitua, noiz helduko?.

EUSKAL HERRIAN

GARAIA astekari berria

Uztailaren 21erako jarri zen salgai GARAIA aldizkariaren lehen zenbakia. Bigarrena irailean kale-ratuko da.

Zumetak egindako azal dotoreaz agertu da GARAIA. Barnea ere atsegin eta modernoa da, argitasunez aurkeztuak artikuluak eta sailak.

Gai nagusi batekin plazaratu da lehen zenbaki hau: **Ante un centenario: 1876-1976 J.A. Aiestaran eta Idoia Estornesek burutua.** Ba dira, gainera, beste hiruzpalau artikulu interesgarri. Ideia oso interesantea iruditu zaigu, beste lurraldetako zenbait idazle ere idazle staff-en sartzea. Katalan izenak dira nagusi.

GARAIAren buru Aurtiz da, ANAITASUNAko idazle, izandakoa. Idazle kontseiluaren burua, berriz, Zeruko Argiaren buru izan zen Andoni Iturria. Idazleen artean, ba da dozena erdi baino gehia-

go euskaraz ongi idazten dutenak. Eta hala eta guztiz ere, artikulu bakarra agertzen da euskaraz.

Intentzioen aldetik, ireki eta zabal jokatu nahi du GARAIAk, euskaldunen astekari bezala presentatuz. Hona zer dioten:

"Euskaldun diren pentsamolde guztiak deitu eta eritziak jasoaz jaio da GARAIA. Gure atzetik ez dago inor, Euskal Herria ez ezik. Beraz, hasieratik garbi diogu, euskaldun guztiena da eta euskaldun diren guzteei dago zabaldua. GARAIA hauzo lan bat da".

Euskal Herrian sortu berri diren erdarazko aldizkariaren artean, GARAIA dugu bigarrena, **Punto y Hora de Euskal Herriaren** ondokoa. Laster sortze-koak dira **Berriak** eta **Sorka** ere.

Bide on diogu GARAIAri, euskal prentsaren garaia lehenbailehen etor dadin lanegin dezan opatu.

**Gaurkoa zarenorri
guk ezer eskaintzean,
biharko emakumeari ere
ari gara eskaintzen.**

Laguntza berriak
zuri ematean,
zure nekeak, zure kezka zaharrak
dihardugu arintzen.

Berriak dira,
zuretzat ditugun asmoak:
onhartzen zailtxoak beharbada,
guztiontzat baita berriak.

Baina zein ederra den pentsatzea,
gaurko urrats zailok
aurrera gaituztela bideratzen,
biharko digutela
bidea urratzen!

Emakumearen Bankua.
Gaurkoa eta Biharkoa

BANCO DE BILBAO






euskal banderari bai

Euskal Herriko erdal egunkariak euskaldunon pazientzia gainditu nahi dutela ematen du aspaldion. Euskal banderari, luzaro bandera separatista moduko izen goxoaz irain egin ondoren, orain ez existentzia ofizial bat ezarri nahi bide diote, jatorriz "bizkaitar" bandera bat delako atxakiaz. Hortik jo ukan du La Gaceta del Norte egunkari bilbainoak Uztailaren bukaeran, foruen galtzea ospatzeko edo, argitaraturiko artikulu memelo batetan. Gutariko tontoenak ere ba zekien, jakin, Sabino Aranak asmaturiko ikurrina, hasiera batez, Bizkairako pentsatua izan zela, bai eta geroago Euskal Herri osorako erabili izan dela ere, Gacetakoek orain arte ikasi ez dutena berau, dirudienez.

Nazional banderak, oro har, joan den mende-koak izaten dira, modernoak. Espainiakoa bera, kasu, Kataluniakoaren kopia sinpletu bat besterik ez da, Napolitik 1785.ean ekarria, oraindik berrehun urte ez dauzkana. Galiziakoa, bestalde, are berriagoa da, gurea baino, eta hala ere legez onhartua.

Sabinok asmaturiko ikurrina egiazki sentituriko hutsune bat betetzera zetorren, eta inork ez dio horretan lehentasuna ukatuko. Bera baino lehen beste saio batzu ere egin ziren, baina ez ziren inoiz hortik irten; harena, aldiz, Pirinioen alde bietara zabandu eta gaur egun euskaldun guztiok haintzat hartua dugu. Hymnoaren kasua bera ere antzekoa da. Gernikako arbola, jatorriz, karlistengandik jasoa dugu euskaldunok, baina gaur guztiona da. Sociedad de Estudios Vascos taldeak, gerra aurretik ere, hirur koloretako bandera Euskal Herri osoa adierazteko egokia eta erabilia zela argi eta garbi aldarrikatu zuen, hor era guztietako pertsonak egon arren.



JERNICA'CO
 ARBOLA...
 DA VEDEINCATUAA...
 VA\$CONGADOEN
 ARTEAN...
 ONGI ZAPALDUAAA...



Nortzu dira bada, ikurrinaren kontra oraino beren destainak jartzen dituztenak? Ezagun-ezagunak ditugu. Fidelidadez beteriko vasco ilustreak dira, vascongadismo sanoaren errepresentatzaile suharrak, Herriari beronen hizkuntzan mintzatzeko gai ez diren patrizioak eta Gernikako Arbola kantatzeko orduan, orain arte hori egiteko ohituragatik antza, kasurik onenean paperari begira egon behar dutenak. Horik dira, bai, berai arbuatzen eta gaitzesten dituen Herriak onharturiko nazional symboloari oraindik beren traba eta oztopoak ipini behar dizkiotena, bizkaitarkeria, alderdikeria eta nik dakita zer gehiago bilatuz. Beraik bekatu larriagoetatik garbi baileuden!

Tximinoa igonago eta ipurdia ageriago.

Xabier Kintana

EUSKAL ERREALITATE BATEN BILA

Saizarbitoriaren azken elaberriak arazo hau darda gainera ekarri digu berriz ere. Eta holaxe ulertu dute bai A. Lertxundik bai A. Eguzkitzak eta bai K. Izagirrek berak ere. Kontua, izan, zaharra da eta, guti edo asko, lehenagotik ere guztiok sentitu eta aipatua. Funtsean honetan datza: Zein punturaino da zilegi erdaraz ikusi eta bizi dugun errealitatea euskaraz ematea, errealitate berberori faltsutu gabe?.

Euskal giroa falta.

Istilu latza da eta ez, soilki, idazleontzat. Euskara ikusia izeneko artikulu batetan neronek Anaitasunatik zera salhatzen nuen: merkatal eta kaletar euskal girorik eza. Beste edozein hizkuntza ofiziale-tan, kasu, denden izenek ba dute, hiztegiez landa, errealitate objektibo bat kaleetan zehar, baina euskaraz ez. Horrexegatik, ikastoletako haurrek, beren textu-liburuetan okindegia, harategia, arrandegia eta holakoak ikasi arren, ikastolako mundutik kanpoan, bai eta herririk euskaldunenetan ere, panaderia, carnicería eta pescadería gisako errealitate batzuekin egiten dute topo, ikastola, hortaz, giro estrainio eta faltsu bat bilakatzen zaielarik.

Hizkuntza idatziaz dioguna, noski, mintzatuaz ere berdin esan genezake, kalean, parkeetan —eta maiz etxeetan bertan, zoritzarrez— erdara besterik ez baitantzute. Hori konpontzea, neurri ezberdinez bada ere, guztion eskuetan dago. Nork bere bizigiroa euskaldunduz: kartelak, txartelak, fakturak eta abisuak euskaraz jarriz, euskara eginez eta ikasiz; eta ez, haurrak ikastolara bidaltzen ditugula eta, gure euskal kontzientzia laxai utziz.

Ba dago, baina, beste zenbait textuinguru ofizial geure esku eta borondatepean ez dugunik. Giro horietako batzutan, kasu, euskara, hypothesis mailan besterik ez bada ere, erabil daitekeela eman dezakegu, hots, zenbait herritako goardia municipalak, alkateak, banku arduradunak, medikuak eta karreradunak posible da euskaldun izatea. Beste toki ofizial batzutan, aldiz, ez eta hurrik eman ere. Mugan pasaportea ematen ari garenean, ez litzaiguke gutariko inori bertan euskaraz egitea, eta askok, bide-kontrol batetan "Arratsalde on. Karnetak mesedez" gisako zerbait entzunez gero, Aliziaren munduan gaudela pentsatuko genuke. Egon, ba daude, beraz, muga eta neurri markatu batzu.

ZABALIK - ABIERTO

BETIKO ORDUAK

HORARIO NORMAL

euskal errealitatea geuk sortzen dugu

Zenbait informazio eta mezu, gainera, berrik ematen direneko hizkuntzarekin erabat loturik gertzen dira, gisa horietako mezuak emateko formulagatik beragatik. Ha sido totalmente desarticulada, kasu, posible da, jakina, euskaraz ezartzea, baina, "erabat ezabatua izan da" k ez dauka besteak daukan konnotapen berezia; indarra falta du.

Euskalgintzan saiatu behar.

Bistan dago, funtsean, euskarak erabateko ofizialtasuna lortu arte ez garela euskaldunok irrealitate mundu honetatik osotoro irtenen, ordurarte geure Herrian arrotz izateko konplexuaz biziko garela. Bainak gauzak ez dira hain sinpleak. Dena goitik behera konponduko delakoan, ordurarte ezer egiteke egotea ez da zuzena. Eta zerutiko manna hori datorren artean inguruko errealitatea erdaraz ematea, azken batez, gure Herrian gertatzen den eta guztiok pairatzen dugun statu quo zapaltzaile baten kontsagrazioa egitea besterik ez da, etsipenerako lehen pausoa, halebria.

Hau, horrela delarik ere, gaingitu beharra dago. Mundua interpretatu ez baina aldatu, irauli egin behar dela esan zuen Treverisekoak. Eta ni harekin nago. Inguratzen gaituen erdal errealitatea ondoegi dazagugu euskaldunok, eta horrexegatik beste errealitate bat nahi eta behar dugu, geureagoa, geuk moldatua. Eta oraingoa ukatzen saiatzea berriari atek zabaltzen hastea da.

Lehen pausoetan etxeaz has gaitzen. Geure buruekin kontsekuente izan behar dugu eta hortik aldarrikatzen eta eskatzen dugun elebitasun famatu hori dezagun, hasteko, geuk bete aurrenik. Dagigun euskaraz, bidal ditzagun geure eskribu eta eskariak geure hizkuntzaz, ez dezagun bileretan geugatik erdara sar, ... hortik has gintezke euskalgintzan.

Fikzioa gerta daiteke, dena den, erdal mundua euskaraz ematea, baina irrealismo horrek ere gogorago erakuts diezaguke kontraesana. Komisaldetako galdeketak euskaraz egitea baino ezinezkoagorik non?. Eta, batera, zergatik ez?.



Saizarbitoriak egin duenak, dudarik ez, meritu haundi bat du, eta erdara non eta noiz ipintze zuzen horrek obrari bere maisutasun maila demaio. Ikastolatako haurren euskara aldrebesaz elaberri oso bat egitea, aldiz —hor zehar esan denez— absurdua da, hizketa hori, andereño eta maisuen aurrean izan ezik, irreala delako. Euskara hain nekez menderatzen duten haur horiek, beren artean, erdaraz egiten baitute, soil-soilki.

Baina hau guztiau, hola izanik ere, gainditu beharra dago, bestela, erabat kontsekuente izatekotan, erdal egoera onhartu eta erdara besterik ez genuke egin behar, bide batez zapalkuntzari laguntasuna emanaz. Ez dugu ahanzi behar gaur egun euskalduntasuna aukera bat dela, korrontearen kontra egindakoa. Berau hautatzen baldin badugu, ondorio guztiak ere jaso behar ditugu. **Komentzio baten premia.**

Biblia, Shakespeare, Voltaire, Marx edo Russell-en lanak euskaraz onhartzan baditugu, zergatik ez besteak? Komentzio huts bat dateke, noski, mamiz faltua, baina berau beste edozein hizkuntzatan ere egiten da —gogora dezagun, bestalde, gure Elsa Scheelen— eta gu, geure diglossi egoera hau gainditzera lagun gaitzake.

Kasurik nabariena, noski, filmeetan dugu, Nork ez du ikusi, esate baterako, Alexandro Haundia, Augustus, Atila, Gengis Khan, Napoleon edo Hitler espainolez mintzatzen? Ez ote dira, Espainian agertzen diren filme gehienak, ingeles, frantses eta erdarazko beste toki eta hirietan gertatzen? Eta hala ere, komentzio baten bitartez, hori normalizat jotzen eta onhartzan da. Ez legoke gaizki euskaldunok beste horrenbestez lehenbailehen jabetzea.

Neurritik ez iragatea, ordea, on da. Filmeetan ere musika originalaz datozen hitzak eta dekoratuetako eskribuak ez dira aldatzen; giroa gordetzeko, noski. Zenbait gauzatarako, erregela berberaz baliagintezkeela ematen du.

Xabier Kintana



euskarak gure ingurua euskalduntzen du



Euskal aldizkarietan, erdaldunei egindako elkarriketak maiz agertzen dira, eta euskaraz. Guztiok dakigu, noski, beraiek ez zituztela hitz horik horrelaxe esan, baina komentzionalki ontzat ematen ditugu. Diputazio bateko presidentek euskaraz mintzatzea irreal da, noski, baina komentzio baten barruan, Yasser Arafaten hitzak espainolez agertzea bezain onhargarria dateke.

amorte de cesario a a empes y vi
o en las are domésticas real r ad
Hab además, qu utilizar intensan

euskadi herriaren kontra?

Galdera larri honen irtenburua bistan dago, gaurko zenbait jokabide politiko ikusiz gero. "Abertzale" anitzen ahotan zer semantika berezia dauka EUSKADI hitzak? Zenbaterainoko lotura kultur-antropologikoa damaiote EUSKADI hitzari bilbotar, iruinear, cibatar, abertzale batzuk?

Denok jakin behar genuke EUSKAL HERRI hitzaren semantikak konnotazio antropologiko-kulturalak dauzkala. EUSKAL HERRIAK "EUSKARADUN HERRIA" esan nahi du. Semantika horren konnotazio kulturalak garbiak dira gure konklairan. Deitura horrek bere erroan euskal nortasun edo identitate antropologikoaren arrazoiak dakarza; gure identitate mailak politikan eta administralgoan (foruetan) baino askoz gehiago atropologi kulturalen sustraitzen dira, hau da, EUSKARAK herri honen identitate funtsa bezala damazkion erroan.

Galdera dramatiko horren zilegitasun nabarmena da gaurko abertzale eta sasipolitikoen jokabideak aztertutik. Dударik gabe, euskaldun askorentzat EUSKADIK semantika politika ta kultur-antropologikoa dauka, hau da EUSKADI ez da aldentzen EUSKAL HERRIAREN semantikatik. Ez noa horien kontra.

Zoritxarrez, bestetarikoak ez dira gutxi gure gaurko praxi politikoan. Hoi entzak EUSKADI erakunde politiko-administratibo hutsa da; EUSKADI horrek konnotazio geografikoak bakarrik dauzka. EUSKADI horretan euskarak ez dauka benetako parte serioarik, "halako pitxi folkloriko" bat da. Gure kultura sasikultura folklorista batean gelditzen da. Euskaragandik desmamitu eta deserrotutik Euskal nortasunaren maila antropologikoak oso ilun eta makal gelditzen dira. Zenbaterainoko giltzadura daukate geroko EUSKADI demokratiko horretan euskarak eta beronen konnotaziotako azalbide guztiek?

Euskararik gabe ezin izan EUSKAL HERRIA, baina bai ote EUSKADI? Zer da EUSKADI delako konnotazio kulturalik gabe? Zer da nortasun antropologikorik ez duen erakunde politiko hori? Ba erreza da erantzuna ximplea da... Delako EUSKADI hori kultur mamirik gabeko izaki administratibo-geografiko bat besterik ez da. Zoritxarrez, hemen ohituak gaude **vasco** deitzean kontzeptu geografikoak erabiltzean. Horrela BILBOKO UNIBERTSITATEA geografikoki "euskalduna" da, Lejoan euzkoelako, baina antropologikoki "euskalduna ote da?"

Bestainbeste, gure EUSKADI hori EUSKADI ote da mami kulturalik gabe? Euskara EUSKADI

horretan azalezko epifenomeno bat ote dugu? Zilegi al zaio gure herriari EUSKADI deitzea, baldin eta bertan euskarak gaurko ume gizajo, diglosiko, mespreziatu bezala irauten badu?

Ez, ez, ez. Ez da EUSKADI "integral" bat bertan mami kulturalak azalekoak baldin badira. Euskararik gabeko EUSKADI posible hori funtsezko **kontradikzio nagusia** da.

Zergatik beldur hori? Nire beldurra egiazkoa da. Gure praxi politikoa (eta Bilbotik begiratuta zer esanik ez) beldurgarria da.

Gure politika taldeen jokabidea kontradiktoria da, gehien batean. Talde horien teorizazioa, propaganda, panfletoak, erreflexioa eta beste maila asko erdara hutsean egiten dira. Beren bilinguismo errebindikazioak tinta hutsa dira; ez dira konprometatzen praxian. Jokabide horien atzetik ez dago EUSKADI izaki antropologiko bat, herriaren kontzeptu politiko-geografiko-administratibo bakar bat besterik. Probak? Begira P.S.O.E.k Donostian azkeneko bi astetan egin duen propaganda guztia: erdara hutsean dago. Ez da enteratu non dagoen. E.K.A.k, M.C.E.k, O.R.T.k gure herrietan egiten duen propaganda gehiena erdara hutsean dago. P.N.V.-ren boletinak halako minibilinguismo folkloriko batean burututa daude. Gure gidari "politikoe" ez dakite euskaraz sarritan. Euskal Herria erredimitu nahi eta herria kulturki zapaltzen segitu... Noiz hasi behar dugu logika batez iharduten? Anoetako Frontoian egin zen agerpenean gure herriko lau alderdi historikoei EUSKADI "integral" horren definizio kaskarra eman ziguten. Han gidariek ez zuen euskararik egin, han gure kultura "kultur arrotza, estrainua" zen. Noiz arte kontradizio nagusi hauk?

Ez. Gure burruka politikoa ez daiteke eten burruka kultural batetik, bestela EUSKADI horren "akzidentalismoa" aurrean dugu. Akzidentalismo horrek hau esan nahi du: EUSKADI ez dela EUSKAL HERRI izango, bere erroan mami antropologikoak bazterturik kontzeptu "administratibo-geografikoak" ez beste erabiltzen baditugu. EUSKADI ez da EUSKADI izango demokrazia, ikurrina, edo ta administratibo berezi bat lortzeagatik. EUSKADI Euskal Herriaren trajektoriatik aldentzen bada **kontradikzio** bat gertatuko da; denok dakigu EUSKAL HERRI izateak mami **antropologiko** eta **kulturalak** barnean dauzkala. Euskararik gabeko EUSKAL HERRIA fartsa bat da. Zer esan gure praxi monolinguista ikustean? Non jarri behar da benetako abertzaletasuna?

Berriro galdera larria: EUSKADI ala EUSKAL HERRIA?

Luis Maria MUJICA

BAZKALONDOKO LAGUNIK ONENA



on
egin

Ondo bazkandu ondoren, ba dakigu zer... Ba daude, egon, paper sofisticatuagoak, kolorezkoak, usain onekoak, etab. Gure ustez horik guztiok koplakeriak dira. Egiaz behar dena hauxe da: paper on bat, tolestu beharrik ez duena, eskuan nekez apurtzekoa eta problemarik gabe garbitzen duena. Eta, gainera, iraunkor eta merkea.



"EL ELEFANTE"

Betidanikoa, luzeena eta merkeena duzu.



galegoak aitzindari

Galiziako Kontzilio Pastoral aurrera doa eta ekainaren 27an egin zen beronen III Biltzarre Nagusia.

250 lagun bildu ziren Batzarre horretara, Galiziako bost probintzietatik etorriak, apezpikuak, apaizak, erlijiosoak eta sekularrak tarteko zirela.

Aurtengo biltzarrean, liturgiaren arazoa ukitu da bereziki, galego hizkuntzak bertan izan behar duen sarrera eta garrantzia azpimarkatuz. Gertakari honetaz ziharduela, ekainaren 26ko ABC egunkariak honela zioen:

“Entre las proposiciones que serán sometidas a la Asamblea figuran las referentes a la liturgia en gallego. El Concilio Pastoral de Galicia pide a todos los cristianos, obispos, curas y legos que participen en la promoción de la lengua gallega, **por ser un valor humano que está asociado con la liberación del hombre gallego y, por tanto, con la evangelización.** Además, el Concilio une su voz a la de quienes consideran insuficiente la concesión vigente en relación con la enseñanza del gallego, y pide a las autoridades correspondientes que se normalice la lengua gallega” (Azpimarra gurea da)

Agi denez, fedea eta herriaren hizkuntzak ba dute zerikusirik. Hain zuzen, 1975.eko maiatzaren 23an, Mondoñedo eta El Ferrol-eko apezpikua den Miquel A. Araújok, gutun eder bat eman zuen ar-

gitara, bertan galego hizkuntzaren eta fede bizitzaren arteko harreman hestuak aipatzen zituelarik. **“A fe cristia ante a custion da lingua galega”**: izenburu hau zeraman artzan gutunak, eta nahiko abarrotsa izan zuen.

Herri bati bere hizkuntza ukatzea, herri horren kontra egin litekeen bortxakeriarik handienetakoa da, jokabide horrek bere identitatea galerazten baitio. Alderantziz, herriari bere hizkuntza bihurtzea herri hori askatasun bidean ipintzea da. Hortaz, hizkuntza eta fedearen arazoa ere arras loturik dauka herri baten dinamikan.

Euskal Herriko Eliza ez dakit guzti honetaz behar adina konturatzen den. Hernengo praxia epela ikusita, ezetz esanen nuke. Tamala litzateke, Euskal Herria bere hizkuntzaren garrantziaz biziro jabetzen ari den honetan, Eliza lozorroan egotea.

Gure Eliza ofizialaren sensibilitatea nahiko sortua ikusten dut aspaldi honetan. Eta hau oso grabea iruditzen zait. Izan ere, herriaren prozesua behar bezala bizi ez duen Elizak zernolako ebangelioa predika dezake?

Ba dirudi, azkenaldi honetan gure Elizak ez duela berezko kreatibitatekerik erakusten. Lehen Estatu larderiakoi baten morroi eta biktima izan baten orain ezertarako adorerik gabe eta noraezean dabil lela ematen du, herriaren martxari ezin antz emanik.

Jose Altuna

Jadanik

**105 bulego ditugu prest zuretzat
eta, gainera, 50 zerbitzu ezberdin
baino gehiago; guztiok zuri
eskaintzeko.**

**Baina, hala ere, gehiago jaso nahi ditugu
Eta lortuko ditugu.**



**CAJA DE AHORROS
VIZCAINA**

Hemen irabazi guztiak zuretzat dira

ITXARO GOIKOETXEA SARIZTATUA.



UBA (Union bayonnaise des Artistes) delako Batasunak, bere aurtengo saria, Itxaro Goikoetxeari eman dio berrikitan. Ondorenez, ekainaren 28tik uztailaren 10era, Baionako Herriko Etxean euskal margolari gaztearen obren erakusketa bat ikusi ahal ukan dugu: berrogei eta hamar bat grabakin (linoleum, "eaux fortes", zurezkoak) eta bai eta zenbait pintura ere.

Itxaro Goikoetxeak, duela lau urte etsaiak muga ondoan hil zuen Jon-en arrebak, beldurretan, oinazetan, lehertu beharrez, atxeki duten Euskal Herria adierazten du bere obretan. Nork lerrake, 29 urte doi-doia duen emazteki gazte alai irripartsu hori dela etsimenduz beteriko obra bortitz horien egile?.

Itxaro, oraingo hau, hire lehen erakusketa dela Euskal Herrian?.

Zer bide izan da, gaur, erakusketa honetara eramán hauena?.

Noiz hasi hintzen margo eta marrazki lanetan?.


Eskola batetan ikasten egon hintzen?.

Hire lan horietan, zenbait artistaren eragipena nabari diaiteken; linoleumetan, Ibarrolarena, adibidez. Zer dion?.

Euskal eskola bat ba dela uste duna?.

Hire obretan, mundu ezinago bortitz eta oinazetua aurkitzen dinagu: heriotza, sufrikarioa, beldurra... Zergatik hori?.

Hire obrak herriarenganaino irits litezen nahiko huke. Bizkitartean, dakinanez, arte lanetan, ez ohi dun hola gertatu. Adibidez, erakusketa hau, Baionako Herriko Etxeko barne handi eder honetan eginaz, Alkateak ofizialki estrenatu ondoan, segur dun herriko jende guti ausartuko dela honaino. Haiantzat ez dela pentsatuko dinate. Zer dion horretaz?.



Bai. Ihaz, Hendaian, zenbait lan aurkeztu nian, baina erakusketa kolektibo batetan. Hau duk, bai,

egiazki Euskal Herrian ene obrez xoilik eratu den lehen erakusketa.

Luzea. Artez kanpoko beste arrazoin batzuk, ez niate sail hau eta behar bezala lantzeraz utzi. Aspaldi honetan, gogorkeriazko giro berezi batetan bizi izan gaituk euskaldunok. Ni neu, eta ene ingurukoak

guztiz sartuak egon gaituk azken urte hauetako euskal herriaren burruketan. Ene langintza hainbat gertakari latzek baldintzaturik eta markaturik egona duk orain arte.

Hamazortzi urtetan hasi ninduan, Bilbon. Mar-go bakarririk aritzen ninduan orduan. Goizetan lan egiten nian, eta gero, lanetik landa, pintore gisa ihar-

duzen nian. Horrela, harreman zenbait ukan nian beste artista batzurekin.

Orduan, ez. Denbora zenbaiten buruan, Deba-ko Eskolara joan nahi ukan nian, baina, ez zuan hilabete bat ban nengoela, hego Euskal Herri- tik ihes egitera behartu bainintzen. Hona, ipar aldera, jin orduko, berriz, Gobernuak hemen egotea debekatu zida- dan, eta lekutu. Nebaren hilketa eta gertatu zuan ondoren. Etsipena nagusitu zuan ene baitan: Parisen egon ninduan, gogoaz guztiz eroria. Denbora ilun hartan, lan guti egin nian, ez bainuen horretarako gogorik. Pintore lanari berritoki lotzeko, Hego Ameri- ketara jo nian. Duela hiru urte orain. Erakusketa bat egin nian Mexiko City-n, eta karia horretara artista batzu ezagutu nitian: Siqueiros, Capdevila, Bejone-

ro, etab... Ipar Euskal Herrira itzuli aitzin, graba- tuaren teknikaren ikasten hasi ninduan, han. Ikaska- ta horren sakontzeko, zenbait hilabete European ira- gan ondoan, berriz joan ninduan Ameriketara. Era- kusketa batzu egin nitian Mexiko-n, San Francisco-n Berkeley-ko Unibertsitatean, etab... Garai berean, zortzi hilabetez, grabatu teknikaren alderdi guztiak ikasten egon ninduan Mexiko-n; Escuela de San Carlos eta Talleres de Santo Domingo direlakoetan bereziki. Anitz ikasi nian: oraingo erakusketa hone- tako lan gehienak grabatuak dituk, linoleum, "eaux fortes", zurezkoak...

Ez diakiat... Denetarik entzuna diat; Goya, Ibarrola, Oteiza, Edward Munch, eta beste batzuren influentzia ikusi diate jendeek. Ez nauk segur hala denik. Ez nauk halabaina egundaino "eskola" bate- takoa izan; ez diat behin ere maisurik ukan. Gerta-

tzen dena beharbada, euskal artisten artean, nahi gabe, estilo berezi bat sortzean ari dela duk; hots, bat bederak berea ekarririk, halako ahaidetasun bat ageri dela denon artean.

Ez diat hori esaten. Zorigaitzez, ez, ez duk eus- kal eskolarik. Baina sortuko dela, beharbada sortzen ari dela, eta, gisa guztiz, sortu beharra dagoela uste diat. Eskola hori sorterazteko, ikertze laborategi bat

izan ledin nahi nitek. Nork gure nortasunaz, euskal artegintza, denok elkarrekin pitz- eta aurrera genie- zakek horrela.

Eginkizun hori beharrezko iruditzen ziaidak.

Artista, enetzat, lekuko bat duk. Gauzak sendi dituen bezala agerterazten zitik. Nik, neure lekuko- tasuna, gezurrik gabe, zentsurarik egin gabe ematen diat. "Norbere buruaz zintzo" izan behar dik artis- tak, eta ni hala izatera saiatzen nauk.

Halaber, euskalduna ere nauk, eta, euskaldun gisa, ene herriak hasia duen askatasunerako burrukan parte hartu nahi ukan diat. Bizi konkretu horretan, ikusi, senditu, jasan dudana adierazten diat; ez zeka- keat bestela egin.

Ene lanetan nabari den iluntasuna, beraz, ez duk asmatua; errealtateak ene baitan hartua duen itxura baizik ez baita. Bistan dena, eraman dudana bizi- zer ikusi handia dikek horretan. Ni, langile bat nauk, gaur egun ere, pinturak bererik ematen ez didalarik, sehi lanetan ari izan behar diat bizitzeko.

Gaur enetzat, ene baitan, bizi naizen, bizi dudana Euskal Herriak kolore konkretu bat dik, eta ez zezakeat hartaz beste kolorerik pinta. Agian, bihar beste kolore bat ukanen dik, eta orduan behar- bada, ene pintura ere aldatuko duk. Harartean...

Bai, zorigaitzez, hala duk. Ipar alde honetan bereziki, hemen ez baita deusik ere egiten herriak artegintza ezagut ahal dezan. Nik ere, erakusketa- k, toki irekietan, kanpoan, kalean, egin litezen nahi nitek. Ezin duk, ordea. Nitaz goragoko problema bat duk. Hala ere, buruhauste eta makur hori atera- bide bat eman nahirik, ere lanak ahalik eta merkeen izatera saiatzen nauk. Hain zuzen ere, horregatik ikasi diat eta baliatzen nauk grabatuaren teknikaz; hari esker, lanak merkeago ateratzen baitira. Kopia-

egiten ahal dituk, eta arte on bat eginez ere, edo- zeinek erosten ahal zitik.

Horri buruz, derradan orain dudana grabakinen egiteko makina beste aldeko artistek eskaini dida- tela. Nik, neure diruz, ez nitean erosten ahalko. Eus- kal artistek erakutsi didaten elkartasun horrek bar- naki hunkitu naik. Bihotz-bihotzez, hemen, Anaitasuna-ren bidez, eskertu nahi nitizkek.

VENEZIAKO BIENALA

Urteak direla, bi-urtero, Veneziako herrian artelanen erakusketa handia antolatu ohi da. Erakusketa hau munduan dagoenik eta garrantzizkoenarikoa da —garrantzizkoena ez bada— eta, noski, artistek bertara joan nahi ukaten dute, beren sinaduraren balioa indartzeko eta bidertzeko.

Duela bi urte, erakusketa honen antolatzaileek, artearen funtzio sozialaz kezkatutik, helburu konkreturen batez moldatu behar zela pentsatu zuten. Eta nahiz eta Italia faxista handien jatorria ere ba den, bi-urteroko erakusketari zentzu berezirik ematekotan, demokrazia lanetan diharduten artistei eskaini behar zitzaizela erabaki zuten, edo, beste modu batez esateko, faxismoaren aurka burrukatzen diharduten artistei.

Aukeratu ere, bide berri horren barneko lehen bi bienaleak ongi aukeratu zituztela esan daiteke: Txile eta Espainiako artistak. Honela, bada, 1976 urte honetan Espainiako Estatuaren indar demokratikoen burrukari dedikaturik dago erakusketa, "1936-1976 tarteko abangoardia artistikoa eta sozial errealitate" izenburuaren inguruan.

Bide horretatik abiatuz, antolatzaileek ez zuten onhartu Espainiako gobernu ofizialaren ordezkariak; eta erakusketa Espainiako erakustetxe ofizialean prestatu beharrean, Italiako erakustetxean muntatu da. Neurri berean, Espainiako oposizioaren ordezkariak Espainiako Estatuaren ordezkari ofizialak bailiren errezibituak izan dira Venezian.

Eta Euskal Herriaz, zer? Uztailaren 17a zen. Egun horretan, "Bienalearen barnean Espainiako Estatuaren oposizio demokratikoaren elkar ikusketa" deitu egintza politikoan, Espainiako Estatu barneko Herri desberdinen artean ez zela Euskal Herriaren ordezkariak ageri jakin erazi zuten hiru euskal kazetarik.

Hiru kazetari hauek, beren protesta adieraziz, ondoko idatzi hau irakurri zuten 1976.eko Bienalearen Prentsa Internazionalaren aurreko aurkezpenean:

"BIENALEAN EUSKAL HERRIA MESPRET-XATUA"

Aurtengo "Mostra" hau Espainiari eskainia delarik, faxismoaren aurka burruka eten gabe egin duen herri baten hutsunea nabari da: Euskal Herriarena, hategia.


Martxoaren 1ean, Espainiako Bienalerako batzordeak Eduardo Txillida, Jorge Oteiza eta Agustin Ibarrola gomitatzen zituen euskal probintzien ordezkari bezala. Aurreneko biek, Txillidak eta Oteizak hategia, beren lanak herriaren politika inguru eta sozial errealitateak at ezin daitezkeela uler, eta herri horrek "Mostra"-n lekurik ez zuelarik, lanak Bienalera bidaltzeak zentzurik ez zuela adierazi zuten. Jokabide hau behin behinekoa ez zela betirakoa baizik adierazi zuten.


Euskal batzorde bat sortu zen eta Bienalerako espainol batzordeko Manolo Garcia Garciarekin izan zuten lehen elkarrizketa batetan, beronen postura gogorra ikusiz, zuzenean Bienaleko buruzagiengana joatea erabaki zuten. Bienaleko buruzagiei "Pabiloi" bat eskatu zitzaient, bertan Euskal Herriak faxismoaren aurka eta bere Aberri Askatasunaren alde darman burruka azal zezan.

Vittorio Gregottik, erantzuna bere esku ez zegoela adierazi zuten, eta Bienaleko Ripa di Meana buruzagiari eskutitza egiteko esan. Eskaera horrek euskal politik eta sindikal mugimenduen laguntza izatea hobe izango zela adierazi zuten.

Euskal sindikalista eta politik alde guztiek onhartu zuten eskaera, eta bakoitzak, eskaera, babestuz, eskutitz bidaltzea. LAB, LAK, ELA-STV, PNV, LAIA, EHAS, ETA p-m, ETA m. Zortzi eskutitz bidali zitzaizkion Ripa di Meana zuzendariari. Bidean egin zuten programan, Txillida eta Oteizaren laguntza agertu zen.

Baina Espainiako Bienal batzordeak, aiantzi ez ezik, baztertu egin zuten Euskal Herria. Jokabide lotsagarri horren aurrean, guk hemen protesta egiten dugu.





Herrialde guztietako kazetalariek gure txosten hau zabalduko dutela espero dugu, eta Bienaleak hartu duen bide berri honetan, faxismoaren aurka burruka eten gabe egin duen, eta Frantzia eta Espainiaren menpean zatiturik dagoen Europako Herri zaharren honek lekua izan dezala eskatzen dugu.

GORA EUSKADI ASKATUA Venezian, 1976—VII-16

Idatzi hau sinatu zuten antolakundeak, honako hauek dira: Preso eta deserriratu euskaldun guztiak Amnistia Batzordea, Euskadiko Profesional Batzordeak, Deserriratuen aldeko Anai-Artea eta Askatasuna Elkarteak, Hauzo Elkarteak, Euskal Irakasleak, Gero, Jakin eta lur euskal argitaldaria, Zeruko Argia, Anaitasuna eta Hitz euskal aldizkariak.

Hori irakurri ondoren, zaratatsua eta argia izan zen beste kazetari guztien solidarizapena. Eta, egia esan guztiz praktikoa gertatu da, zeren eta italiar artistek ehun metro koadratu eskaini dizkiete euskal artistei, Euskal Herriaren agerpena egin dezaten. Txalogarria artista horien jarrera!

Lotsagarria, ordea, espainol batzordearen jokabidea. Betiko zentralismoari loturik, ba dirudi ez dutela Euskal Herria onhartu nahi. Eta bide beretik abiatu diren indar politiko demokratiko espainole-
ez zer esan?

Ramon Garai

OHARRA: azken orduko berriek diotenez, italiarrek Euskadiri utzi dioten tokian ikurriña soil-soilik jarri dugu euskaldunok, gure bakardea ageriaz.

BEPSAKO AGIRIA

BEPSAKO Administral Kontseiluak, Foruak kendu zirenetiko ehunurtehurrena dela eta, 1976.ko Uztailaren 27ko bileran, ondoko erabaki hau onhartu zuen:

“Foruak kendu zirenetiko ehunurtehurrenen manifestazio, ekintza eta osterantzeko ospakizunak direla eta, BEPSAK, jendaurrera hurrengo adierazi nahi du:

1.— BEPSA foruak birjartzeko eskakizunarekin bat datorrela, berau Euskal Herriari bere ondare historikoaren zati bat bihurtzea delakoan.

2.— Arazo honen inguruan zenbait talde politiko, era askotako erakunde eta pertsona batzuk egindako erabilera tendentziosaz bere kezka agertzerazi nahi du, holakoak Foruak kentzearen mendehurren bezala bereaiek Euskal Herriaren interesetan omen duten ardura haundia erakusteko baliatu izan baitira.

3.— Ardura biaz dakusagu, gainera, talde, erakunde eta pertsona horik, orain Euskal Herriaren eta beronen eskubideen aldeko burrukalari suhar gisa agertu nahi dutenak, azken berrogei urteotan batzutan Euskal Herriaren interesen kontrako jarrera ezin argiago bat erakutsi eta bestetan Euskal Herriak, bere nortasuna agertzeko edozein ekintzatan, estrukturalki pairatu duen gogorkeriaren aurrean ixiltasunik haundienaz egon direnak berak direla.

4.— Gaiaren erabiltze tendentzios hau, talde, erakunde eta pertsona horien jokabidean ezin argiago azaltzen da, eta bereaiek Euskal Herriaren sentimenduak errepresentatu nahi dituztela esan arren, ez dute horregatik beren orain arteko jokabide ezberdinaz ukorik egin, ez eta gaur egun Herri guztiaren nahia den AMNISTIA OSOA eskatzeko bozik altxatu ere, horren bidez euskaldun preso politiko guztiak aska eta herbesteratuak herrira daitezzen, beste edozein eskabide egin aurretiko baldintza berau.

5.— Halaber, Bergarako Alkate jaunak Uztailaren 21ean egindako hitzaldiaz guztiz bat gatzela adierazi nahi dugu, horretan Euskal Herriaren sentimenduak, arazo larri batzuri dagokienez, argi eta garbi azaltzen baitira, hots, nazional soberaniaren problemak, amnistia osoarenean, lehengo eta oraingo hil eta presoenganako oroitzapenean, Herriak guztioi zor dien omenaldian eta euskara maila guztietan ofizialki ezartzeko premiaren arazoan”.

Bizkaiko Euskal Profesionalartekoa, S.A.



AGORRIL: Abuztua.
AHOTS: boz, voz.
AITZIN: aurre(tik).
ANITZ: asko, franko, ugari.
ARTZAN: (h.e) **pastoral**.
AZPIMARKA(TU): **subrayar,-ado**.

BALDINTZA(TU): kondizona(tu).
BARNAKI: barruan, barrutik.

DARAMATZATE: eramaten dituzte, daroez.
DEA: al da?, ote da?.
DERRADAN: esan dezadan, esan daidan.
DIAT: dut (toka mintzatuz).
DIK: du (toka mintzatuz).
DIKEK: duké (toka mintzatuz).
DINAT: dut (toka mintzatuz).

ERANSKAILU: **pegatina**.
ESKAKIZUN: **reivindicación, petición**.
ESPETXE: gartzela.

GARRANTZI: inportantzia.
GARONDO: **cerviz**.
GRABAKIN: marrazki, grabatu.

IKERTZE: aztertze, investigación.
IKURRIN: euskal bandera.
IRAGAN: igaro, pasa(tu).
ITSUKERIA: itsu izatea.

JIN: etorr(i).

KAPERA: **capilla**.
KOMISALDEGI: **comisaría**.

LABORATEGI: **laboratorio**.
LEKU(TU); **deserri(tu), herbestera(tu)**.
LEKUKOTASUN: **testigantza, testimonio**.

MAKUR: i. oker. 2. kalte.
MARTITZ: **Marte**; hitz hau bizkaierazko
martitzen hiltzean gordetzen da ("astearte")
dirudienez, **Martis** — e(gu)n-etik sortua izanki.
MENDEHURREN: **centenario**.

NEBA: neska baten anaia.
NIKEAN: nukeen (toka mintzatuz).
NIKEK: nuke (toka mintzatuz).
NITIZKEK: nituzke (toka mintzatuz).
NOKA: neskekin mintzatzeko hika modua.

ÑABARDURA: **matiz, nuance**.

PRESONDEGI: gartzela.
PUXIKA: 1. **vejiga**, 2. **globo**.


SEHI: morroi.
SUTE: su haundia.

—TIK LANDA: —tik kanpo.
TOKA: mutlekin mintzatzeko hika modua.

UKAN: eduki, izan (erg).

ZEZAKEAT: dezaket (toka mintzatuz).
ZITIK: ditu (toka mintzatuz).

IRUDIMENAREN TXOKOA



Irudimenaren txokoari, Agur,

Herrien dihoakizue Euskararen Alde-rentzat zenbait eritzi:

- Egunkaria (behar larria)
- Irrati indardun bat (Euskal Herri osorentzat gutxienez)
- Telesaioak (Egunoro ordu bete gutxienez).
- Antzerkiak (Haurrentzat eta adinekoentzat; Taldeak presta, herriz-herri antzestu)
- Mezak eta semoiak (ugariak eta beharrezko) nrduetan)
- Pribado eta Colegio Nazional etako haurrei, Doktrinaren irakaskuntza.
- Colegio Nazional eta Institutoetan Euskal klaseak, nahiz eta, oraindik orain, programa orduetatik kanpo izan.
- Gau eskolak
- Alfabetatze kanpainak.

Honenbestez agurtzen zaitue Euskal herriko irakasle batek.



PETRONOR

Refinería de Petróleos del Norte, S. A.

BATZARRE OROKORRA

Bilbon, Ekainaren 23an, Nemesio Fernández-Cuesta jaun haundiaren zuzendaritzapean egina, bertan, emandako kapital osoa presente zegoelarik.

1975.eko egintza eta ondorioak

- Ekoizpen eta salmenta mailen gehitzea, nazional eta nazioarteko atzerakada klima gora behera.
- Oinagitur eta garraio planen sendatzea, hedapen arrazional eta harmoniko biderako oinharria berau.
- Orain artekoa finantziatzeko premia gehituz eta kostoen garestizetik sorturiko ekonomi gainkargak garaitzeko egokitze ahalegin nabariak.
- Natur inguruarekiko egintza eta proiektuak.
- Portu instalakuntza berriak eta 500.000 T.P.M. rainoko petroliuntzietarako atzakalekuak zerbitzutan jarzea.
- "Santa Maria" petroliuntzia, 361.000 T.P.M. takoa, lanean hastea.

Perspektibak

- Birfindegia, Gordelekuen edukimen gehitua, Portu Berria eta Flota delako multzoa operazionalki batu direla eta, oraingo inbertipenen errentagarritasuna handitzeko uste sustraitua.
- Harmoniaz hazteko helburua, oraingo inbertipenen ahalmena beren azken muturreraino eramanez, gure geographi jarrerak nazional eta europar merkatuen aurrean dituen abantail nabariak tarte direlarik.
- Aurrean esandakoa lortzeko, ekoizpen eta egintza ezberdinetan banatzeko estrategia bat.
- Estrategi plan honen lehen ekintza gisa, petrokimikaren arloan buru belarri sartzeko gogoia, beronek kapitalizapen eta tekhnologian dakartzen premia guztekien.

Hemiteza, ekoizpena eta salmentak

- Erdian multzo ibiltaria guttitzeko asmoz, aurrean EROS-BETAK guttiti egin dira aurreko urtekoekiko.
- Oinagitur bera ere guttiti egin da. Bantry Bay-ko eskala aldatzearen eta Superportuaren atzakalekuak zerbitzutan jarzea.
- Espainiako birfindegietan prozesaturiko gordina, aurreko urtekoekiko, % 7,7m guttiti arren. PETRONORrek PROZESATURIKO KOPURUA %, 1,4ean eta SALMENTAK %, 3,9an gehitzen lortu zuen.
- SALMENTEN kapituluaren, aipagarria de gure enariak Monopoliarantz zuzendutik izan direla batik bat, kanporatutako errentak, beraien merkaturako errentagarritasuna hain nabarmen izan.

KONPAINIAREN 1975.EKO EGINTZAK

Birfindegia	Mila T/mtan
Erositako gordinak	5.906
Prozesaturiko gordina	6.130,6
Ekoizpen salmentak	6.049,3
Nazional Merkatuan:	5.806,5 (% 96)
Atzerriariko:	242,8 (% 4)
Flota	Miloi Tm/milia
Garraioketak	40.049

- Orain 40.000/20.000, 10.000 eta 3.000 T.P.M.tako atrakalekuen muntaketan lanean aritzen da, 1976.etik aurrera portua guztiz probetxaturik gera dadin, bai gordina ekartzeko eta bai ekoizpenak irtekeko.
- Jadanik, 350.000 m³tako zabalera osotik 138.000 m³tako arlo bat sakondu eta leundua da. PETRONORrek superportuan hartua daukan nasa kontuan.

Muskizeko Birfindegia

- 1975.ean zenbait lan egin dira ekoizpen haundiagoak eta instalakuntzen gaitasuna hobetzeko asmoz.
- 1975.ean PETRONORrek zenbait ekitaldi egin zituen Bilbo Haundiako eskualdeko kutsadura guttitzeko eta bera ari deneko geographi ingurua zaindu eta babesteko helburuz.

Gehitzeko proiektua

- Birfindegia zabaltzeko proiektua praktikan jarri da, horrela PETRONORren birfintzea 12 MM.Tm/ urteko, izan dadin.
- Prozesuko ingeniariaritz erabat bukatutik, honez gero xehetasuneko ingeniariaritzan aritzen da, berau jadanik % 40ean amaitutik egonki.
- Teji berria 1978.eraiko lanean ariutako dela aste da.

Gordetzeko tegien zabaltzea

- 1975.ean eta 1976.eko lehen hilabeteetan, gordinak gordetzeko, hiru tanke berri ezarri izan dira, bakoitza 110.000 m³takoa. gasolio, nafta eta gasolina edukitzeko sei tanke berri eta, fueloilorako beste sei tanke.
- Honez gero, gordinetarako sei tanke berri finantzatzeko lanean ari gara, bakoitza 64.000 m³takoa delarik. Berak jarri ondoren, PETRONORren gordetzeko ahalmena ondokoa izanen da:

Gordinetan	1.225.000 m ³
Ekoizpenetan	886.400 m ³

Beste hedapen batzu

- PETRONORrek, Birfindegia, gordetzeko tegiak, nasek eta portu zerbitzuek daukaten lurraldeez gain, 100 hektarea baino zabalera haundiago bat du oraindik, bere hedapen planerarako utzia.

Flota

- 1975.eko abenduaren azken egunetan zerbitzutan hasi zen "SANTA MARIA" untiak, PETRONOR espainol unti enpresarenenak lehenia sugitzen da, duen ahalmena 11.600 T.P.M. tako tonelaia izanki, hurrengo untiotan jarraitzen:

"SANTA MARIA"	361.000 T.P.M.
"ARTEAGA"	324.000 T.P.M.
"BUTRON"	324.000 T.P.M.
"MUNATONES"	98.000 T.P.M.

- PETRONORren jabegepeko flota Birfindegira ekartzen den gordinarene % 73a gurraizten du.

Portu instalakuntzak


- 1975.eko Apiril eta Irailen 150.000 eta 500.000 T.P.M.takoa atzakalekuak amaitu ziren, gordinen deskargak penintsula baino 15 hilabetea aurrerapen batez erraztuz.
- Aurrerapen honi esker (gordina), unti haunditan ekartzeko sortzen dituen abantailak aragotu egin dira.

1975.EKO EKONOMI DATU AIPAGARRIAK


	Miloi pezetatan
Salmentak	34.585
Cash-Flow sortua	2.417
Etakina:	
Amortizapenak	1.876
Dibidendua (% 8,38 brutto)	251
Inbertipen berriak	5.238

EKONOMI FINANTZAR MAGNITUDEAK

	Miloi pezetatan
Gelditua eta Stockak	30.425
Kapitala eta erreserbak	8.954
Amortizapenerako hondoa	5.581
Epe luzerako zorrak	11.555



GURUTZEGRAMA



Luzetara: 1:Kontsonantea.- 2: Aitaren anaia (alderantziz).- 3: Bokala. Bihi (alderantziz). Kontsonantea.- 4: Esku zahagi txikia (artikuluarekin).- 5:Nahia Gorputzaren goiko abarra (alderantziz).- 6: Frakarrria (alderantziz eta artikuluarekin).- 7: Kontsonantea. Ordaindu beharra. Bokala.- 8: Kutxa (pluralean) .-9: Bokala.- 10: Bokala.- 11: Frutu ezagun bat.

Goitik behera: 1: Kontsonantea.- 2: Bildurra (pluralean).- 3: Bokala. Iturriari dariona (alderantziz). Kontsonantea.-4: Oin muturreko zatia (artikuluarekin). Bokala.-5: Modu haretan. Aberastasunik gabea (alderantziz eta artikuluarekin).-6: Lupean bizi den ugazdun animalia (artikuluarekin). Bokala.- 7: Bokala. Abercak gelerazteko deia (alderantziz). Kontsonantea. Kontsonantea. 8.-Landare arantzadun bat (alderantziz eta pluralean).-9:-Bokala.

AZALPENA.
Luzetara: 1: H.- 2: abaso.
- 3: l. eIA.- 4: Zahatoa.
5: Gura. oseB.- 6: autarit
- 7: K. zor. G.- 8: Kakak.
- 9: I.- 10: A.- 11: Sagar.
Goitik behera: 1: G.- 2:
Izuak.- 3: A. arU. K. S.-
4: Behatza. A.- 5: Hala.
aoxiG.- 6: Satorra. A.-
7: O. osik. F.- 8: kaetC.-
9: B.



Bergaratik bidali digute ale honetarako astabelarridungaia. Foru berrien hirian, hain zuzen, euskara ongi idaztea ahantzi egin zaie batzuri.

ONGI ETORRI moduko esaldi labur, ezagun eta arrunta ONGUI ETORRI bihurtua dute. Horretan ez dago barkazioarik, ez horixe. Are guttiago, gainera, horren egileak Bergara'ko Gastedia (sic) moduko izen xorogarria eramanik. Ea noiz eguneratzen diren eta BERGARAKO GAZTERIA gisa azaltzen. Arrazoi guztiongatik,urrezkorik gabe, bekorotzezko astabelarriak bidali behar dizkiegula uste dugu. A! eta garraioa beraien kontura gainera. Horixel!

Herriarekin. Herriarentzat.



Caja Laboral.



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AVREZKIA**

Gipuzkoan, nor gu baño gertuago?

91 etxe zuretzat urbillago

Izan ere, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa etxe hau duzue Gipuzkoako Kutxetan lehengoa.

Horregatik, gipuzkoarren zerbitzurako beti gertu eta prest egotera behartuak gauzkazu. Hauxe da gure egitekorik nagusiena. Horretarako sortu zen, batik bat, Caja de Ahorros

Provincial de Guipúzcoa 1896. urtean. Gipuzkoarren kutxa duzue Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Ba duzu arrazoirik, beraz, gurekin elkarturik egon zaitezen.

Utz ezazu zeure uste osoa Gipuzkoako lehen Kutxa den etxe honetan.

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA**

